

ATEAK ZABALTZEKO JARDUNALDIA ORGANOA

2010ko martxoak 4

2010eko martxoaren 4an Musikenek Ateak Zabaltzeko jardunaldia antolatuko du Organu espezialitatean. Bertan organu espezialitateko irakasle titular den Esteban Landart-ek parte hartuko du. Jardunaldia Musikenen eta Loiolako Bihotz Santuaren Parrokian, Donostian, egingo da (ikus Google-eko loturak behean).

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako organo ikasketak egiteko interesa duten ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten organo ikasleak

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Zein da jardunaldien helburua?

- Ikastegiko ikasleekin Musikenen egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenak bideratzea, gaintitu beharreko sarrera-probak direla eta.
- Proba hori gaintitzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaintituz gero ikasleek zein ikasketa-plan izango duten azaltzea.

Zer egin behar dut joateko?

Jardunaldira etorri ahal izateko **erreserba aurrez egitea** beharrezkoa da, **izena emateko orriaren bitartez**.

Zein da lan-egitasmoa?

Osteguna, martxoak 4:

10.00. Musikenen hitzaldia, interesa duen edonorentzat, bai etorkizunean ikasle izango direnentzat, bai eta beste ikastegi batzuetako irakasleentzat edo orokorrean edozein entzulentzat ere. Organo ikasketen funtzionamendua emango da ezagutzera bertan.

12.30-16.30. Organo eskola irekiak Loiolako Bihotz Santuaren Parrokian.

19.30 Organo-kamara musika gelako entzunaldia aipatutako Parrokian.

Non dago Musikene?

MUSIKENE

Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Miramar Jauregia

Mirakontxa, 48

20007 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943 316778

Faxa: 00 34 943 316916

E-maila: info@musikene.net

Mapan ikusi nahi baduzu:

<http://maps.google.es/maps?hl=es&tab=wl&q=palacio%20miramar>

Eskolak eta kontzertua egingo den Eliza non dagoen jakin nahi baduzu, honako loturan klikatu.

<<http://maps.google.es/maps?hl=es&ie=UTF8&ll=43.310218,-1.966448&sprn=0.000595,0.001719&z=19>

Informazio gehiago behar dut...

Egin kontaktua zuzenean gurekin eta zure zalantzak argituko ditugu: jperez@musikene.net